

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko otsailak 20 · 1386 zenbakia

GOGORATZEKO KANTUAK ETA KONTUAK



T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babeztuta egongo
den **garantia**

OSASUN GIDA

DENTISTAK

Kolegiatu n.º. 20037023

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3.º ezk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

arat.
HORTZ KLINIKAK CLINICA DENTAL

ZURE
IRRIBARRE
ONENA

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com

EIBAR HORTZ KLINIKAK
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
RPS 72/18

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental

T: 943 70 00 82

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implantak / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfn. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-782886

Odontologia
Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4.º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

RS Hortz Klinika
Jose Usen Rodriguez
Montero DOKTOREA

LARRIALDIK
ERE LANTZEN DITUGU

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RS 603 48 90 18 / SAN JUAN, 7

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
978 Kolegiatu zkoa.

- INDIATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- Puntón eta TRATAMENDUAK
- K-stretch + HIPOPRESIOAK

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAGUSTA, 20
T.L.F: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1089 kolegiatu zkoa.

I. Ojanguen, 2 678 746 617

Julian Etxebarria, 7 688717529

muina
FISIOTERAPIA ZENTROA

Zorri Pelbikoa · Fisioterapia orokorra · Taldetako
Irene Alberdi Sarobe

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martinez  Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eus



Hainbat urtetako isilunearen ondoren, Deus Ez taldeak disko berria kaleratu du: 'Zain'. Bideoklipak ere landu dituzte eta orain zuzenean ikusteko aukera izango dugu. Ohiturari jarraituz, lehenengo kontzertua ZaiZoi tabernan emango dute, otsailaren 28an.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratwzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Hortik esanak



Alkohola eta tabakoa legezko substantziak dira, eta helduarora igarotzeko prozesuan normalizatuta daude; beraz, horiek harreman mekanismo gisa funtzionatzen dute. Baina kontsumo dinamikak generoaren arabera aztertzean, ikusten da mutilentzat erretzea eta edatea haien artean erlazionatzeko modu bat dela, eta neskentzat, berriz, nabarmentzeko modu bat, beste neskek egiten ez duten zerbait egiteko modu bat. Eta segituan agertzen da zigorra: «Ez zait gustatzen nire neska lagunak erretzea», eta halakoak.

PATRICIA MARTINEZ REDONDO,
antropologoa eta gizarte hezitzailea

Gutako zenbat sentitu gara deseroso, oso behatuta edo beldurtuta espazio askotan? Ba ez, ez dira sentsazioak, eta ez gara sentibera edo ahoberoak. Oinarri materiala du horrek guztiak: ahots tonuarekin, gorputzarekin, hitz egiten pasatzen dugun denborarekin edota tabernetan entzuten diren musika taldeekin espazio publikotik desplazatzen gaituzte. Eta oso ondo ikasten dugu txikitatik; bestela, jo jolastoki bateko patiora eta begiratu nork hartzen duen futbol zelaia okupatzen duen %80 eta nor esertzen den alboetan baloien kolpeak jasotzen (futbolearen jokatzeko ari direnei traba egiten).

NAIA KORTABERRIA,
militante feminista

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PLAZARA URTEN. → Jendaurrean agertu. “Plazara bertsuetara urten ziranian”.

PLE-PLE.. → Edanda, ez mozkor-mozkor eginda, baina bai pozik.

“Atzo ezkontza baten egon giñan eta ple-ple amaittu genduan”.

PLE-PLE EGIN. → Parrandan, zurrutean ibili. “Ple-ple egin Katillunian, eta badoiaz etxerutz kantu soiñuan”.

1954

Atletismoa goraka

1950eko hamarkadan Ipuruan aritzen ziren atletak, baina 1956an Eibarko Klub Deportivoak zabaldutako gimnasioan hasi ziren. Ezkerretik bigarrena Javier Zengotita Galdos da. Elgoibartarra izan arren, kirola egitera Eibarrera etortzen zen, aukera gehiago zituelako. 63 urterekin Behobia-Donostian parte hartu zuen. Argazkia bere artxibokoa da, semeak bidalia.



Farmaziak

- BARIXAKUA 20
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)
- ZAPATUA 21
- EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- DOMEKA 22
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)
- ASTELEHENA 23
- EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- MARTITZENA 24
- EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)
- EGUAZTENA 25
- EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)
- EGUENA 26
- EGUNEZ | Zulueta (San Agustín, 5)
- BARIXAKUA 27
- EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Fernando Perez de Obanos Lopez. 56 urte. 2026-II-12.
- Juan Matias Hernandez Martin. 75 urte. 2026-II-12.
- Boni Salegi Arakistain. 95 urte. 2026-II-13.
- Yolanda Acosta Cordero. 56 urte. 2026-II-14.
- Felix Larreategi Mendez. 74 urte. 2026-II-16.
- Loli Agrafojo Garcia. 2026-II-16.
- Maria Ortega Veloso. 87 urte. 2026-II-17.
- Maria Gonzalez Fondevila. 96 urte. 2026-II-17.
- Maria Pilar Vila Cabo. 80 urte. 2026-II-18.
- Arantxa Etxaniz San Martin ("Miren"). 91 urte. 2026-II-18.



Ekimena herriz herri ari dira garatzen. Urtarrilean Bergaran izan ziren jardunaldiak. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Errebal ongizateari buruz aritzeko plaza bilakatuko da eguen eta barixakuan

Datorren astean, otsailaren 26an (eguen) eta 27an (barixakua) Eibarren egingo du geldialdia Eibarko Ongizatearen Plaza ekimenak, Errebalgo merkatuan. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako jardunaldi berezi honek ongizatea zer den eta nola eraiki daitekeen kolektiboki hausnartzeko aukera eskainiko du.

SILBIA HERNANDEZ

Errebalen bi egunez zabalduko den plazak parte-hartzerako guneak eskainiko ditu, non herritarrek euren iritzia eman, proposamenak egin eta esperientziak trukatu ahal izango dituzten. Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan parte hartzeko dei egiten die eibartarrei eta inguruko herritarrei, “ongizatea guztion kontua baita”.

Jardunaldia *Osasuntsu zahartu* saioarekin abiatuko da, Adinberriren eskutik (otsailaren 26an, 10:00etan). Goizero ETBn ematen duten programaren formatu

berezian, jarduera fisikoa, estimulazio kognitiboa eta ongizate emozionala uztartuko dira. Iñigo Vicens prestatzaile fisikoak kirol saio irekia gidatuko du, Naia Rosek estimulazio kognitiboko ariketak proposatuko ditu, eta Raquel Rodríguez mindfulness-ean adituak arreta kontzientea lantzeko tresnak eskainiko ditu.

Ondoren, 11:30ean, nahi ez den bakardadearen gaiari helduko zaio. Ados Teatroak ekoiztitako hiru film labur proiektatuko dira, eta ondoren solasaldia egingo da, J.A. Vitoria (Ados Teatroa), istorioeta-

ko protagonista baten eta Untzaga gizarte zentroko ordezkariekin.

Arratsaldean (17:00etan), Why Not Fundazioak osasun mentalari buruzko zuzeneko podcast saioa eskainiko du, eta desgaitasun intelektual eta gaitz mentalak dituzten herritarren ahotsak bilduko dituzte. Ondoren (18:00etan) *Emakume ahaldunduak* mahai-ingurua hasiko da. Arrate Berasaluze langile eta aktibista feminista historikoa, Mariam Ourdi El Alaoui (Kabia-Eibar San Andres egoitzako zuzendaria), Ana Ramos (EITBko kirol kazetaria), Maite Aperribay ekintzailea eta Amaia Gorostiza (Eibar K.E.-ren presidentea) izango dira parte-hartzaileak.

Gazteen ongizatea eta elikadura jasangarria

Bigarren egunean gazteen ongizateari buruzko saioarekin hasiko da egitaraua, 10:00etan. Gazteek eurek hartuko dute hitza, euren ongizatearen eragina duten faktoreez aritzeko. Saioa Armeria Eskolarekin elkarlanean antolatu da. Ondoren, 11:30ean, Jakoba Errekondo agroekologian adituak elikadura jasangarriaren gakoak aztertuko ditu, Nagore Martin (Egotza baserria) eta Ander Urkia (Amazabalegi baserria) Debabarreneko bi baserritarrek batera.

Arratsaldean (18:00etan), Altxa Burua elkarteak gidatutako saio dinamikoan, mugikorren eta teknologia digitalen erabilerak haurren ongizate emozionalean, sozialean eta fisikoan duen eragina landuko da. Berezik gurasoei zuzendutako jarduera izango da, erabilera arduratsu eta osasungarria sustatzeko tresnak eskaintzeko.

Eta jardunaldak amaitzeko, Kantu Jira saio berezia eta pin-txo-poteoa egingo dira, 19:00etan.



Basalgoko proiektu eolikoaren kontrako mendi martxa eta banderolak

Mendiak Bizirik plataforma herri-tarrak martxoaren 7rako herrien arteko mendi martxa antolatu du, eta herriarrak Topinburura igotzera animatu dituzte, mobilizazio bateratuan parte hartzeko. Taldeak Soraluzetik, Eibartik, Elgoibartik eta Elgetatik abiatuko dira. Bergarako herritarrek, berriz, Soraluzeko taldearekin bat egingo dute. Antolatzaileen asmoa da bakoitza bere herritik irtetea, eta 11:00etan To-

pinburun denak elkartzea. Eibartik 09:30ean abiatuko dira (Urkizutik). Aldi berean, Eibarko Mendiak Bizirik-ek beste kanpaina bat abiatuko du, Basalgoko proiektuak gizartean sortu duen aurkako erantzuna ikusarazteko. Horretarako banderolak salduko dituzte, martxoaren 6an (barixakua) Untzagan, eta martxoaren 7ko mendi martxan ere erosi ahal izango dira.

Txente Errekondok hitzaldia emango du martitzenean Kultur

S.H. Eibarko Sortutik “*Munduko argazki berria, mundu berri baten ordena*” izenburuko hitzaldia antolatu dute otsailaren 24rako (martitzena), 18:30ean Arrate Kultur Elkartearen (lehen solairuan). Nazioarteko gaietan aditua den Txente Errekondok egingo du berba eta, antolatzaileek diotenez, “begirada altxatu eta munduari erreparatzeko aukera izango dugu”. Sarrera librea izango da.



Munduko argazki berria,
**MUNDU BERRI
BATEN ORDENA**

Txente Errekondo
Nazioarteko analisten hitzaldia

OTSAILAK 24 - 18:30 - KULTUR



Felix Bergara Zurutuza apaiza

13. URTEURRENA (2013/02/22)

“Ez zaitugu ahazten,
Felix. Gure artean
jarraitzen duzu”

Haren aldeko
URTEURREN MEZA
ospatuko da domekan
(otsailak 22), 10:30ean,
AZITAINGO parrokan.



- M^{re} CARMEN HAREN IDAZKARIA, SENIDEAK, JASOKUNDEKO
ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK -

Jose Maria Arana Arrate

3. URTEURRENA: 2023/02/19



Ez du axola zenbat denbora
igartzen den. Egunero
gogoratzen zaitugu eta
eskertzen dugu aitarik
onena izan dugula.
Maite zaitugu.

- ETXEKOAK -





Udalak Ipuruako garaieak lizitatuko ditu auzoko bizilagunei lehentasuna emanda

Eibarko Udalak Ipurua auzoko aparkaleku faltari aurre egiteko urratsa eman du eta, horretarako, Ipuruako Anexoan, Santa Ines kalean dagoen aparkaleku publikoaren erabilera lizitatuko du. Astelehenaz geroztik aurkeztu daitezke eskabideak udalaren webgunearen bidez, ziurtagiri digitalarekin, edo aurrez aurre Pegoran. Epea martxoaren 31n amaituko da. Ekimen honen bidez 38 plaza jarriko dira herritarren esku, horietatik bat mugikortasun urriko pertsonentzako egokitua. Auzoko bizilagunek izango dute plazak lortzeko lehentasuna. Plaza bakoitza 50 urtez izango da erabilgarri, eta esleipena araudi

publikoari jarraituz egingo da. Zozketan parte hartzeko, beharrezkoa da Eibarren erroldatuta egotea, ibilgailu bat izan edo enpresa-lagapen bidez edukitzea, eta zerga- eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatea. Mugikortasun urriko plaza eskatzen dutenek, txartel ofiziala izan behar dute. Herria bi gunetan banatuko da eta lehentasuna hurbilen dagoen eremuan bizi direnei emango zaie. Modu berean, pertsona bakoitzak gehienez plaza bat lor dezake, “betiere ez badu beste jabetzarik A gunean”. Prozedurari buruzko xehetasun guztiak kontsultatzeko Udalaren webgunean sartu.

Eibarren eratu den talde feminista berriaren aurkezpena egingo dute gaur

S.H. Talde feminista berri bat sortu da Eibarren, eta gaur (barixakua, otsailak 20) egingo dute jendaurreko aurkezpena, eibartarren artean ezagutzera emateko. Ekitaldia 18:30ean izango da, Arrate Kultur

Elkarteko lehen solairuan. Antolatzaileek herriko emakume eta herritar guztiak gonbidatu dituzte aurkezpenera, taldearen sorrera eta helburuak ezagutzeko aukera izan dezaten.

Gazteak martxoaren 17ko Greba Orokorra prestatzera deitu du Ernaik

Martxoaren 17rako Greba Orokorra dago deituta Hego Euskal Herrian. Testuinguru horretan, Eibarko Ernai gazte antolakundeak jakinarazi du gazteek ere mobilizazioan parte hartuko dutela, beren bizi- eta lanbaldintzen alde, eta herriaren etorkizuna erabakitzeko eskubidearen alde. “LGSa hemen erabaki. Hemen lan egin, Euskal Herrian erabaki” da zabaldu duten leloa.

Greba Orokorriari begira, Eibarko gazteak antolatzen hasteko bi hitzordu iragarri dituzte: otsailaren 27an (barixakua) izango da lehena, 18:00etan informazio-komite moduan planteatuta; eta bigarrena, berriaz, martxoaren 6an, izango da, ordu berean, eta greba-egunari forma emateko komitea izango da. Bi bilerak Arrate Kultur Elkartearen lokaletan, lehen solairuan egingo dira.



Auzozain berriak martxotik aurrera hasiko dira lanean

S.H. Eibarko Udalak iragarri du martxotik aurrera lau auzozain berri hasiko direla lanean, “elkarbizitza eta hiri-segurtasuna hobetzeko”. Auzozainak Amaña-Legarre, Urki-Ipurua, Jardiñeta-Ekialdea eta Ekialde-Erdigunea auzoetan jardungo dute.



Euskeraz primeran! martitzenean hasiko den neguko merkealdien azokan izango da

Dendari eta bezeroen artean euskarazko harremana bultzatzeko helburua du ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen Euskeraz primeran! ekimenak, eta aurreneko merkealdien azokan izango da, Errebalen, herritarrei erosketetan ere euskara erabil dezatela gogoratzeko. Hiru egunetan, otsailak 24, 25 et 26, mahaira gerturatuko direnek dinamika erraz batean hartu dute parte, eta horren trukean Euskeraz primeran!-eko poltsa jasotzeaz gain, Dendari Elkartek emandako 100

euroko Oparitu Eibar txartelaren zozketan sartuko dira. Hiru egunetan goizez, 10:00etatik 12:00etara jarriko du mahaiak ...eta kitto!-k, eta gerturatzen diren guztien artean saria zeinentzat izango den erabakitze zozketa, berriz, azken egunean (egunean) egingo dute, Errebalen 12:00etan.

Merkealdien azoka Eibarko Udalak eta Eibarko dendariak antolatzen dute, eta aipatutako hiru egunetan zabalduko dute Errebalen, 10:00etatik 20:00etara.

Zaporeak Debabarrena erronka solidarioa prestatzen hasi dira

S.H. Martxoan egingo da Zaporeak Debabarrena erronka solidarioaren zortzigarren edizioa. Eskualdeko herri guztiek indarrak batu eta dituzte beste behin ere, Zaporeak elkartearantz eta Lesboseko kanpamentuan dauden asilo-eskatzailentzat elikagai bilketa egiteko. Atzo egin zen aurtengo erronka prestatzeko boluntarioen bilera irekia, eta laster emango dugu erronkari buruzko informazio guztiaren berri.

Debabarreneko herriak elkarlanean, Zaporeak-en alde

#zaporeak proiektua

www.zaporeak.eus



Amets Martin Bastida

4. URTEURRENA
2022/02/22

“Eman zenigun maitasuna betirako gure bihotzetan bizirik”

ZURE ARREBA ETA AMA

FUNEUSKADI
Grupo Alstia

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

EGUEN ZURI

Erdiguneko
kalejira



Argazkiak: Silbia Hernandez eta Eibarko Udala.
Argazki gehiago etakitto.eus



PREGOIA



KALDEREROAK

ARATOSTEAK ZAPATUA





PLAYBACK LEHIAKETA



AMAIA EREÑAGA

Tximeletak

Bigarren Errepublikaren aldarrikapenaren egunean edo Martxoaren 8an, hedabideotan sarritan erabili izan dugu Indalezio Ojangurenen irudi bat: 1933ko azaroaren 5eko hauteskundeetan aterata, euskal emakumeak bozkatzeko eskubidea izan zuten lehen aldikoa da. Hiru baserritar, buruzapia dotore lotuta eta lotsaren eta afankerixaren arteko mugan dirudien keinua ezkutatu ezinik, botoa emateko itxaroten daude.

Interneteko Gure Gipuzkoa atarian aurkitu ditut haien izenak. Botoa ematen ari dena Joseba Gervasia Agirrebengoa da, Aginaga Azpiko baserrikoa; aldamenean ditu Maria Josefa Acha Belaustegi, Aginaga Gainekoa, eta Josefa Suinaga, Suinaga baserrikoa. Botoa emateko kutxaren atzean, Mertxe Magunizelaia.

Beraz, azaroan, 93 urte beteko dira egun historiko hartatik. 93 urte Ojangurennek gure iruditerian irudi ikoniko hura txertatu zuenetik. Eta denbora luzea dirudien arren, ia mende bat, gure herrian badira bat baino gehiago 93 urteen muga gainditu dutenak. Gizaki bakar baten bizitza igarotzen den denbora tarte horretan zenbat bizipen... eta zenbat eskubide irabazi eta gal daitezkeen. Ez dezagun ahaztu, nostalgia neofaxistaren mamuaurrean.

Baserritar haiek lehen aldiz botoa eman zuten urtean jaio zen Matilde Isasi-Isasmendi emagin eta erizaina. Bere biografia gure historia garaikidearen isla bizia izan zitekeen: 36ko Gerra, frankismoaren itzal beltz luzea, askatasunaren aldeko borroka, euskara eta gure kultura sustatzeko ahaleginak, emakumeon ahalduntzerako bidea...

Matilde eta Tximeletak, bere kuadrillaren ezinena, ekarri nahiko nituzke gogora: Amaia, Marisa, Ina, Pris, Mireia, Malu, Marijo... eta gure ama, Marian. Etxetik kanpo lan egin -etxean ere bai, nahitaez!-, herriarekin konpromisoa erakutsi eta emakumeen arteko ahizpatasuna landu dute beti. Hain beharrezkoa den elkarren zaintzan maistrak dira, emakume asko legez.

Beste bi argazki: bat, Txontako pareta batean ikusi nuena, 50eko hamarkadakoa edo. Norma fabrikako langileak dira, emakumeak, bizikletako urkilak eta koadroak margotzen. Bigarrena: 1938ekoa, Eibarko erraketista gazte talde batek beltzez jantzitako amona bat inguratzen du. Josefa Ignacia Albisu lazkaotarra da, lehenengo emakume pilotari profesionala. Ahizpatasuna eta belaunaldien arteko katea, Tximeleten hegaldian kiribildua.

“Baserritar haiek lehen aldiz botoa eman zuten urtean jaio zen Matilde Isasi-Isasmendi emagin eta erizaina. Bere biografia gure historia garaikidearen isla bizia izan zitekeen”

“Ez genuen abestiak gordeta geratzerik nahi eta taldea berpizteko aukera ikusi genuen”

DEUSEZ • Musika taldea



Pandemia bat, aitatasunak eta mundua hankaz gora jarri dituzten gertakizunak gairatu eta bueltan da Deus Ez musika taldea. ‘Deus Ez’ (2017) eta ‘Sherpak’ (2019) diskoak kaleratu ondoren, ‘Zain’ argitaratu zuten azaroan. Orain, taldea osatzen duen hirukotea zuzenean ikusteko aukera izango dugu, otsailaren 28an, Zaizoi tabernan.

Eric Deza abeslari eta gitarra-jolea Iruñean bizi denez ezin izan zen gurekin elkartu, baina bai ostera Alex Etxeberria baxu-jolea eta Koldo Sagarzazu bateria-jolea. Eta non hobe Zaizoi tabernan baino? Motorrak berotu genituen datorren astean eskainiko duten kontzertua baino lehenago eta disko berriaz jardun genuen eurekin.

‘Zain’ deitzen da zuen disko berria eta, hain zuzen ere, zaleak zain izan dituzue hainbat urtetan, material berriaren gose. Zergatik pasa da hainbeste denbora?

ALEX: Izenak badu joko hori pixka bat. Diskoari ez diogu horregatik jarri izena, baina izena aukeratu genuenean ironia hori bazegoen.

KOLDO: Ez da arrazoi bakarra egon hainbeste denboran ezer berririk egin gabe egoteko, arrazoi ezberdinak egon dira. Alde batetik, pandemiak harrapatu gintuen eta geldialdi bat eduki genuen, gero Eric Olaia Inziarterekin dabil biran eta Iruñean bizi da, umeak ere egon dira tarteko... Gauza ezberdinak elkartu dira, baina jada ez dago gehiago zain egon beharrik.

Zergatik erabaki duzue orain bueltatzea?

ALEX: Abesti hauek nahiko landuta geneuzkan, gehienak orain dela bost urte. Batzuk ia amaituta



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **OIHANE ZABALA**

genituen eta beste batzuk hasierako fasean, baina ez genuen abestiak gordeta geratzea nahi eta taldea berpizteko aukera ikusi genuen. Orduan, abestiak grabatzeko eta kontzertu batzuk egiteko helburuarekin egin dugu aurrera.

Urte hauetan bizitza aldatu zaizue neurri batean.

Deus Ez ere aldatu dela esango zenukete?

KOLDO: Bai, dezente. Abesti hauek sortu genituen sasoiaren beste kutsu bat zuten eta orain gehiago landu ditugu, beste toki batean grabatu ditugu (El Tigren) eta ekoizleak asko lagundu digu. Kutsu ezberdina eman nahi genien eta berak lagundu egin digu soinu aldetik aldaketa ematen. Esango nuke



Disko berriaren hiru bideoklip kaleratu ditu Deus Ez taldeak. DEUSEZ

gure musika sinplifikatu egin dugula. Gordinagoa egin dugu, efektu gehiago sartu ditugu (lehen ez ginen ausartzen) eta disko ezberdinagoa da.

Itzulera honetan musikaren mundua ere aldatu egin dela igarri duzue?

ALEX: Bai. Lehen kontzertuak lortzea zaila zen eta esango nuke orain are zailagoa dela. Agian gizarteak berak jo du horretara, baina orain denak izan behar du berezia. Euskal Herrian ere mainstream-a asko hazi da, kontzertu handiak egiten dira eta jendeak horiek galtzeko beldurra du, FOMO delakoa ('Fear Of Missing Out', zerbait galtzeko beldurra). Horrez gain, musikaren mundu alternatiboa ere nahastu egin da. Betiko taldeak daude eta gero azpitaldeak dituzte, eta azkenean denek elkar ezagutzen dute. Orduan, bost-bospasei urte kanpoan egon ondoren, ez da erraza hor sartzea, baina beno, hor gabiltza borrokan eta kontzertu batzuk lortu ditugu. Gu bezalako talde batek lan asko egin behar du eta ez zaigu besterik geratzen. Zaizoi bezalako tokiak egoteak beti laguntzen du.

KOLDO: Asko jaitsi dira lokal txikietako birak. Oraindik badaude toki batzuk, Zaizoi adibidez, edo gazte-

“Gure musika sinplifikatu egin dugu, gordinagoa, efektu gehiago sartu ditugu (lehen ez ginen ausartzen) eta disko ezberdinagoa da”

txeak, baina jaitsi egin da lokal txikien jarduna. Dena oso ‘festibaleroa’ bihurtu da, jaialdi txiki edo handiak, baina jaialdiak azken finean. Zaila da zirkuitu batzuetan sartzea.

Zentzu horretan zein helbururekin itzuli zarete?

ALEX: Jaialdiren batean jotzea demasa izango litzateke, baina badakigu zaila dela. Nire helburua abestiak guk nahi genuen moduan ateratzea zen, grabatutakoa gustatzea eta formatu fisikoan, bideoklipetan eta merchandising-ari dagokionez zerbait polita ateratzea. Zortea eduki genuen, Musika Bulegoaren dirulaguntza

Elkarriketaren
BIDEOA



jaso genuelako eta asko lagundu digu lan horretan. Produktu polita atera dugula pentsatzen dut. Gero, kontzertuen grina bizitzeko gogoia dugu.

Nola eskuratu dezakegu zuen diskoa?

KOLDO: Gure kontzertuetan edota deusez.bandcamp.com web orrian. CD eta binilo formatuan eskuratu daiteke, eta laster kamisetak eta bestelako produktuak jarriko ditugu eskuragai.

Lehenengo singlea urrian kaleratu zenuten, 'Zaunka', gero etorri zen bigarrena, 'Sare', eta azaroan 'Zain' diskoa. Nolako harrera izan du?

ALEX: Kritikak nahiko onak izan direla esango nuke, ezin gara kexatu.

KOLDO: Orain arte gure musikara gerturatu ez den jendea gerturatu da. Diskoak beste soinu batzuk ditu eta beste toki batzuetara iritsi gara. Harrera ona izan dela iruditzen zaigu. Ez gara Top Gaztean egongo, baina bai beste hedabide batzuetan. Adibidez, Mondo-sonoro aldizkari espezializatuan urteko disko onenen zerrendan sartu gaituzte. Horrelako gauzek aurrera jarraitzeko indarra ematen digute eta gustura gaude.

Bideoklipak egin dituzue, diskoa biniloan kaleratu... Nolako balioa ematen diozue horrelako proposamenak egiteari? Zergatik egin horren aldeko apustua?

ALEX: Gauza politak egiteko aukerak genituela ikusi genuelako. Sekula egin ez ditugun gauzak dira. Inoiz ez dugu binilorik atera. Bideoklipak bai, baina hauek profesionalagoak dira, ez gara jotzen besterik ez agertzen, istorio bat kontatzen dute, aktoreekin. Horrek demaseko lana du atzetik, batez ere den-dena hiruon artean egin behar dugulako, ez baitugu inor atzetik. Hau musika maite duzulako egiten duzu, bestela ez zenuke egingo.

Zaizoin eskainiko duzue itzulerako lehen kontzertua, hilaren 28an. Zer espero genezake?

KOLDO: Indarra. Gure ezaugarrietako bat zuzeneko indarra izan da. Aurreko diskoetan jaso genuen feedback-a izan zen diskoa ondo zegoela, baina zuzeneko beste kontu bat zela. Eszenatoki gainean hiruok gaude, ez dago inongo efektu berezirik, eta pentsatzen dut



“Oinarrian rock indartsua entzungo da, zuzeneko indartsua, baina orain arte eduki ez dugun beste puntu bat izango du ikuskizunak”

beste indar puntu bat eskaintzen dugula zuzenekoetan.

ALEX: Berritasun bezala, base batzuk sartuko ditugu eta teknologia gehiago erabiliko dugu. Hori zuzenekoetara ekartzeak lana eman digu, baina hori ondo ehuntzea lortzen dugunean zuzenekoek beste dimentsio bat hartuko dutela uste dut.

Aurretik Deus Ez ikusi duenak ezustekoa eramango du Zaizoiko kontzertuan?

ALEX: Berritasunak ikusiko ditu. Oinarrian rock indartsua entzungo da, zuzeneko indartsua, baina orain arte eduki ez dugun beste puntu bat izango du ikuskizunak. Interesgarria izango dela iruditzen zait.

“Medikuok 70 ordutik gora egiten dugu lan astero”

MIKEL ARROYO • Euskadiko Sendagileen Sindikatuak (SME) ordezkaria Mendaroko Ospitalean >>>

Otsailetik ekainera bitarte, medikuek hilero astebeteko grebak egingo dituzte Espainiar Estatu osoan, eta, noski, baita Debarreneneko ospitaleetan eta osasun-zentroetan ere. Helburua: euren lan baldintza duinak eta estatutu propioa aldarrikatzea. Medikuen lan eta bizi balditzak bermatzeari esker, pazienteek arreta duina jasoko dutela defendatzen dute.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Medikuak greban ikustea ez da ohikoa. Bestalde, azken asteetan irudi hori ohiko bihurtuko da Espainiako Estatu osoan, baita Debarrenen ere. Euskadiko Sendagileen Sindikatuak (SME) deituta, otsailetik ekainera bitartean hilero astebeteko grebak egiten ari dira, medikuentzako lan-baldintza duinak eta estatutu propio bat aldarrikatzeko. Protestek osasun-sistema publikoaren egoera eta profesionalen eguneroko errealitatea jarri dituzte mahai gainean. Grebaren arrazoia, eskualdean duen eragina eta etorkizunari begirako erronkak hobeto ezagutzeko, Mikel Arroyo, SMEko ordezkaria Mendaroko Ospitalean, elkarrizketatu dugu.

Zerk eraman zaituzte grebara?

Medikuok urteak daramatzagu estatutu marko berri baten zain. Gaur egun, gure soldataren zati handi bat jardunaldi osagarrien menpe dago, eta hilean gutxienez hiru guardia egin behar ditugu, ordu arrunta baino gutxiagoan ordainduta. Gainera, langile faltagatik, oporretan edo bajetan beste lankideen hutsuneak bete behar izaten ditugu, eta horrek ezinezkoa egiten du lana eta bizitza pertsonala uztartzea. Estatutu berriak egoera hori konpondu beharrean, betikotu egiten du, eta medikuen iritzia kontuan hartu gabe negoziatu da. **Eskari nagusia estatutu propio bat da. Zergatik?** Beste profesionalak ezinbestekoak badira ere, ospi-



taleetako egitura medikuaren figuraren inguruan eraikita dago. Era berean, gure prestakuntza askoz handiagoa da: gutxienez 10 urte behar dira osasun publikoan aritzeko, eta ondoren etengabeko prestakuntza. Erantzukizuna ere askoz handiagoa da. Nire espezialitatean, ginekologian, ia ezinezkoa da hamar urteko esperientziadun lankiderik ezagutzea auzitegi-tara iritsi ez dena. Ebakuntza-gelan zelataria, garbitzailea, laguntzailea edo erizaina falta liteke, baina pentsaezina litzateke kirurgialaririk edo anestesistarik gabe ebakuntza bat egitea, “ahal izan duguna egin dugu” esanez.



Hego Euskal Herriko medikuek protestan eta grebak eginez jarraituko dute. Hiriburuetan mobilizatu dira aste honetan.

Zein da eskari nagusien artean premiazkoena?

Medikuak ez gara superheroiak. Ofizialki 35 orduko asteak ditugu, baina benetan 70 ordutik gora lan egingen dugu, eta langile faltarekin 90 ordura ere iritsi gaitzke. Horrek langilearen osasunean eta kontziliazio familiarrean eragin zuzena du.

Gainera, erasoak oso ohikoak dira. Hamar ordutik behin mediku batek jasaten du bat, batez ere emakumea bada. Gure lanaren parte da albiste txarrak ematea, hala nola minbizia edo gaixotasun larriak, eta askotan pazienteek edo senideek sentitzen duten frustrazioa gurekin ordaintzen dute. Urte asko behar dira egoera horiek kudeatzen ikasteko, eta bokazioagatik, emaitza txarrak etxera eramaten ditugu maiz. Estres eta erantzukizun handiarekin, eta aldi berean etengabe gaixotasunez inguraturik egonda, logikoa da medikuntza arrisku-profesiotzat hartzea.

Historikoki medikuek greba saihestu izan dute arrazoi etikoengatik. Nola bizi izan duzue hori?

Medikuok historikoki biztanleriaren bizi-itxaropena handitu dugu, eta kalitate hobearrekin. Horrek esan nahi du pazienteak gero eta zaharragoak eta konplexuagoak direla. Greba egitea oso zaila zaigu, baina ulertu dugu gaixotzen bagara edo erabat agortuta bagaude, ezin diogula gizarteari behar bezala erantzun. Irtenbide bakarra da herritarren babesarekin sistema hau aldatzea; bestela, osasun-arretaren okertzera eta pribatizaziora goaz.

“Herritarren babesa behar dugu medikuen baldintza duinak bermatu eta pazienteak behar bezala artatzeko”

Nolako eragina du grebak pazienteengan?

Greban egon arren, gutxieneko zerbitzuak bermatuta daude: larrialdiak eta gaixotasun larriak artatzen ari dira. Lehen mailako arretan ere arreta ematen da, baina presarik ez duten kontsultak edo ebakuntzak atzeratu egin daitezke. Herritarrei ulermena eskatzen diegu; greba hau ez da pribilegioak lortzeko, baizik eta gainerako langileek bezala lan- eta bizi-baldintza duinak izateko.

Zer mezu helarazi nahi diezu Eibar, Mendaro, Elgoibar eta Soraluze inguruko paziente eta herritarrei?

Herritarren babesa eskatu nahi dugu. Batetik, borrokan ari garelako Deba, Itziar eta Mutrikuko herritarrek ere gainerakoek bezala medikuarengana eta espezialistetara sarbide bera izan dezaten; gaur egun, 15.000 biztanletik gorako eremua izan arren, aukera gutxiago dituzte. Bestetik, medikuon osasuna arriskuan dagoela, eta nekatuta edo gaixo bagaude ezin ditugula pazienteak behar bezala artatu. Herritarren laguntza behar dugu, gure helburu nagusia Debabarreneko osasun-arreta hobetzea delako.

“**Lourdes Iriondoren obra aztertzea izan da gure omenalditik onena**”

LOREA JAINAGA • Irakaslea eta ikerlaria



Santiago Onaindia bekaren XVIII. edizioa irabazi ondoren, Lourdes Iriondoren inguruko ikerketa abiatu zuten Lorea Jainaga Albizu eibartarrak eta Alexander Gurrutxaga Muxika zarauztarrak. Horren emaitza da ‘*Lourdes Iriondo, bide-urratzaile*’ liburua, euskal musika modernoaren aitzindari eta haur eta gazte literaturaren sortzailearen figura itzaliari argia ematen dion lana.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **OIHANE ZABALA**

Lourdes Iriondo Lorea Jainagaren bizitzaren erdigunean jarri da azken urteotan. Bere inguruan ezer gutxi jakitetik, inork ezagutzen ez zituen gauzak aurkitzera iritsi da eibartarra Alexander Gurrutxagarekin elkarlanean, eta gure gizartean Lourdes Iriondorekiko zegoen hutsunea nolabait bete dute, berarekin genuen zorra pixka bat kitatuz.

Lourdes Iriondoren inguruko ikerketa egin duzue, baina zergatik aukeratu zenuten bera?

2022an, Lehen Hezkuntza gradua ikasten ari nintzen eta, Gradu Amaierako Lanaren gaia aukeratu behar nuenean, Alex irakasleak gai hau proposatu zidan. Amua bota (Lourdes biografia, bere inguruko hainbat datu, prentsako hainbat zati...) eta atentzioa eman zidan. Orduan, liburu honen hastapena izango zena landu nuen: ‘Aitzindari baten urratsak. Lourdes Iriondoren haur eta gazte literatura’. Epaimahaikoek esan zidaten bertan landutakoa zabaldu beharra zegoela eta Santiago Onaindia beka lortzeko gure proposamena aurkeztu genuen. Beka eman ziguten eta lan mardulagoa egin dugu. Izan ere, haur eta gazte literaturaz gain, kantagintza ere aztertu dugu bertan.

Horren guztiaren aurretik Lourdes Iriondo nor zen

ondo ezagutzen zenuen?

Lourdes oso gutxi ezagutzen nuen. Xabier Leteren emazte bezala eta kanta baterengatik ezagutzen nuen batez ere (‘Gazte gera gazte’), baina ez nintzen kontzientzia izan horiek bere abestiak zirela bere figura aztertzen hasi ginen momentura arte. Konturatu nintzen gertuko hainbat gauzek berarekin lotura zutela eta horrek tira egin zidan hau egiten amaitzeko. Bertan, ez dira bakarrik bere inguruko pertsonen testigantzak jasotzen, bere obra aztertzen da eta horren bitartez bere izaera, pentsatzeko era eta beste hainbat gauza ezagutu ditugu.

Nola moldatu zarete lana egiteko?

Hasteko, bere obra eskuratzea oso gaitza da. Liburutegietan bila hasi ginen, sare publikoan bere diskoen eta liburuen izenak sartzen, eta oso zaila izan zen ezer lortzea. Ale asko liburutegietatik, Koldo Mitxelena kultur-gunetik eta, asko, baserrietako ganbaretatik lortu ditugu. Lagunei eskatuta lortu ditugu aleak eta horrela lortu ditugu diskoen kontrazalak ere (letra bakoitza, musika eta abar nork egin zuen jakiteko). Konturatu gara zerrenda askotan lan horiek gaizki jasota zeudela. Hau da, izenburuak, argitarapen urteak eta zenbait gauza txarto zeudela jasota. Bitxitasun bezala, ‘Asto baten malura’ liburuaren bila joan nintzen Eibarko



Lorea Jainaga (laugarrena ezkeretik hasita) eta Alexander Gurrutxaga (bosgarrena) liburuaren aurkezpen egunean.

liburutegira eta esan zidaten hori ez zutela, baina bai 'Asto baten maluz'. Liburutegi publikoen sarean bost ale zeuden bigarren izenburu horrekin, hau da, gaizki, eta bi izenburu zuzenarekin.

Beraz, oztopoei ere aurre egin behar izan diezue bidean.

Demaseko oztopoak! Aleak lortzeko izerdia bota dugu. Beste egunean Alexekin komentatu genuen denbora gehiago pasa dugula aleak topatu nahian aleak aztertzen baino.

Gauza batzuk kanpoan geratu direla sentitzen duzue? Hau da, agian ez dituzuela aurkitu?

Argitaratutako asko aurkitu ditugu, gehienak. 'Txorien baratza' lanarekin gertatu zitzaigun bat-batean Tolo-sako liburutegian argitaratuta zegoen lan bat agertu zela, inolako zerrendetan agertzen ez zena, eta esango nuke lehen aldiz guk aztertu dugula. Zortea izan dugu, familiakoen aldetik bere apunteak, eskolako materialak eta abar jaso ditugulako. Horien artean, 'Fabrika berria' izeneko antzezlanak lortu dugu, hainbat herritan umeei egin zuen antzezlanak eta Joxemari Iriondok 'Bidegileak' bilduman Lourdesen inguruan egin zuen biografian aipatu zuena. Demaseko ohorea izan da.

"Pauso bat atzera egin eta azken urteetan herrigintzan eta hezkuntzaren munduan pasa zituenez, bere figura itzaltzen joan zen edo itzali egin genuen"

Lourdes Iriondoren gertuko jendearekin egin duzue berba. Nola hartu dute egin duzuen lana?

Oso pozik eta eskertuta. Alexek Xabier Leteren inguruko lana egin zuen aurretik eta bazuen harremana eurekin. Gure lanaren helburuetako bat 'herstory' horretan ale bat jartzea izan da. Hau da, bigarren planoan egon diren emakumeak lehen planora ekartzea. Oraindik lana dago arlo horretan. Sortzaileen zerrendetan begiratzen badugu, ikusi dezakegu gizonen kopurua askoz handiagoa dela, eta ez da emakumerik ez zegoelako, baizik eta bigarren planoan geratu direlako edota, Lourdesek bezala, pauso bat atzera eman zutelako. Lourdes 'Euskal

ELKARRIZKETAREN BIDEOA
YouTuben ikusgai



Herriaren nobia' eta 'Ez Dok Amairuren musa' izan zen. Beraz, nola galdu dugu figura hori? Pauso bat atzera egin eta azken urteetan herrigintzan eta hezkuntzaren munduan pasa zituen, figura hori itzaltzen joan zen edo itzali egin genuen. Bepizte edo gogora ekartze horrekin familiakoak oso pozik eta harro jarri dira.

Bide-urratzailea izan zela diozue izenburuan. Zergatik?

Bide-urratzaile jarri genuen Lourdesek katebegi lana egin zuelako. Bere testuingurua kontuan hartu behar dugu. 1964an hasi zen abesten eta bere azken lanak 1982koak dira. Frankismoaren sasoi, horren osteko, sasoi hartako mugimendu politikoa, egoera soziala... Hori guztia aintzat hartu behar da. Berak katebegi lana egin zuen lehengo generazioaren eta etorri zirenen artean. Bere lanak euskal haur eta gazte literaturaren sistema garaikidea sortu aurrekoak dira. 80. hamarkadan sortu zen hori eta aurretik Lourdes egon zen. Bere lanetan tradizioa eta horrelako gaiak aurkitu ditzakegu, baina baita gai berritzaile eta apurtzaileak ere. Txarraren eta onaren arteko dikotomia, zaharra eta berria, eraikin berriak egitea eta industria garatzea eta natura zaintzea... Joko hori egiten du. Bide-urratzailea izan zen, sasoirako modernitate hori sartu zuelako. Beti ere, bizi izan zen testuinguruan ulertu behar dugu, egungo begiradarekin aztertuz gero bere figura jausi egin daitekeelako edo bere obra zahartu egin daitekeelako. Horregatik, kontuan izan behar da sasoi hartan oso berritzailea zela, oso apurtzailea.

Bere figura itzali egin zela edo itzali egin genuela aipatu duzu. Lan honekin justizia pixka bat egiten da?

Liburu hau ikerketa lana da. Azken aldian omenaldi asko egin zaizkio, baina orain arte bere obra ez da aztertu. Lan txikiak egin dira (Xabier Etxanizena eta Amaia Alvarezena kasu), baina obra ez da aztertu. Orduan, obra jaso eta kritikoki aztertu ondoren, horri balioa eman nahi izan diogu. Pentsatzen dugu horrela egiten zaiola omenaldirik onena.

Bere obra aipatu duzula, aurreratu daiteke beste liburu bat argitaratzeko asmotan zaudetela, ezta?

Bai. Bere obra lortzeko zailtasunak izan ditugunez, bere obra publikoarengana heltzeko berrargitalpen baten beharra ikusi dugu. Ez dakigu hurrengo hilabetean edo



udaberrian zehar izango den, baina bere haur eta gazte literaturako obrak berrargitaratzea da gure helburua. Eta ez bakarrik argitaratu zituenak, guk aurkitu genuen 'Fabrika berria' argitaratu gabea ere sartu dugulako.

Alex eta bioi zer ekarri diozue ikerketa hau egiteak?

Poztasuna. Bi urteko lana izan da eta oso pozik gaude emaitzarekin. Pentsatzen dugu ondo islatu dugula gure ikuspegia eta gure aldetik omenaldia egin diogula.

Haur Hezkuntzan irakaslea zara. Lan honek baliabideak edo ideiak eman dizkizu lanean jarduteko?

Berritzailea izan zela diot, zorionez bere lanak ikusteko aukera izan dudalako eta bere apunteetan demaseko lana egiten zuela ikusi dudalako. Ikastolak sortzen hasiak ziren lanak publikatzen hasi zen sasoi berean eta orduan ez zegoen ezer, euskarazko materiala sortu egin behar zen, eta berak sormen lan hori egin izana demasa da. Nik ere antzerkiak egiten ditut umeekin eta atzean dagoen lan hori lehen pertsona ikusten dut. Ez da bakarrik antzerki bat sortzea euren intereseko gairen batekin, baizik eta antzerki hori eurei erakustea, testua irakastea, nola antzeztu... Horrek lan mardula du atzetik, ez bakarrik sormen lana, eta Lourdes asko miresten dut alde horretatik, ezer ez zegoen sasoi horretan gauza handia egin zuelako.



Aste honetako saioan iragana jantzi eta kalera ateratu dugu, “Mozorrotutako iragana” izenburupean. Eskualdeko inauterietako tradizioak hartu ditugu ardatz, herri batzuetan oraindik bizirik dirauten ohiturak ezagutzeko eta partekatzeko. Iragana ez da gordeta dugun zer-bait; gaur egungo komunitatea ulertzeko oinarria da. Ez galdu aste honetako saio osoa gure webgunean!

ALBISTEAK

Gipuzkoako Herriarteko Bertso Txapelketa Debarrenera iritsi da. Lehen kanporaketa barixakuan jokatu da Soraluzen.



Basalگو zentral eolikoaren aurkako mendi martxara deitu du martxoaren 7an Mendiak Bizirik plataformak.



Ots 20

M8	M8 ASANBLADA IREKIA	18:00	EMAKUMEEN TOPALEKUA (ERMUA)
ERAK.	GAI GRISA HAINBAT ARTISTA	18:30 20:30	PORTALEA (EIBAR)
BERTSO.	GIPUZKOAKO HERRIARTEKOA (1.FASEA)	20:00	GAZTETXEA (SORALUZE)
JOLAS.	TRIBIALA + MENDAQUIZZ	19:30	GAZTETXEA (MENDARO)
MUSIK.	KONTZERTUAK BERUN + JAM SESSION	22:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)

Ots 21

HITZAL. M.8	ERRONKAK ETA PROPOSAMENA. ITAIA	11:00	LOBIANO (ERMUA)
MENDIA.	IRTEERA. DEBA-LEKEITIO.	08:00	TREN GELTOKIA (ERMUA)
MUSIK.	THE HOODOO DOCTORS	20:00	LOBIANO (ERMUA)
ANTZER.	CASTING LEAR	19:00	COLISEO (EIBAR)
TAILER.	SERIGRAFIA TAILERRA	11:00	IMP (EIBAR)
TAILER.	PAPERA ESKUZ EGITEKO TAILERRA	10:30	KULTUR ELKARTEA (DEBA)
BERTS. ANTZER.	ITZAL(IKO) BAGINA	18:00	ISPILUEN GELA (DEBA)
HITZAL. M.8	ERRONKAK ETA PROPOSAMENA. ITAIA	11:30	GAZTETXEA (DEBA)

Ots 22

ANTZER.	CONTRA ANA	19:00	UNI-EIBAR (EIBAR)
MENDIA HISTOR.	GERRA-FRONTAREN IBILBIDE HISTORIKOA	11:00-14:00	ARRATE (EIBAR)
MENDIA	ZUHAITZ EGUNA	10:00	ENPARANTZA (MENDARO)
JOLAS. MUSIK.	TXURI-BELTZA DA TA...	17:30	ISPILUEN GELA (DEBA)
MENDIA	ZERAIN-ARRIPILLAE-TA-SEGURA	07:30	BUS GELTOKIA (DEBA)
IKUSK.	ESKILARAPEKOA UMORE IKUSKIZUNA	18:00	BURUGORRI GAINEAN (ITZIAR)

“Ahozkotik gertuko hizkera imitatu dut, baina atzean oso ariketa neurtua dago”

MIREN AMURIZA • Idazlea



Pleibak nobelarekin etorri da Eibarrera Miren Amuriza, Harixa Emoten irakurle-taldeak gonbidatuta. 2000ko hamarkadako bi neska neraberen adiskidetasunaren inguruko istorioa jasotzen du Amurizaren bigarren eleberriak, eta horretarako ahozkotasunetik hurbil dagoen testua sortu du, “hizkuntzarekin esperimentatzeko nahiak bultzatuta”.

Testua **MAIDER ARANBERRI**

Non du abiapuntua liburuak, nondik sortu zen *Pleibak*?

Liburuaren idazketa-prozesuaren abiapuntua hizkuntzarekin esperimentatzeko edo proba batzuk egiteko nuen nahia izan zen. Orain dela urte batzuk Andrea Abreuren Panza de Burro argitaratu zenean gutako askok egin genion galdera hori gure buruari, ia horrelako zeozer euskaraz idatz genezakeen. *Pleibak*-en nerabe batek hitz egiten du lehenengo pertsonan eta nahi izan dudana da alde batetik ahozko erregistrotik oso hurbil egotea eta, bestetik, gazte hizkeratik ere gertu. Hori bai, euskararen baldintzetara egokitu naiz eta nahiz eta Andrearek egidako ariketak eta hemen dagoenak zerikusirik ez izan, beste zirrikitu batzuk topatzen ahalegindu naiz erregistro hori sortzeko.

Hain zuzen, ahots narratzaileak erabiltzen duen hizkuntza da liburuaren ezaugarri deigarrienetakoa, ahozkotik hain gertu. Zergatik heldu zenion horri eta nola definituko zenuke?

Erregistro hori sortzeko hasiera batean nahiko modu intuitiboan hasi nintzen idazten, baina gero irizpide bat zehaztu nuen. Ahozkotik gertuko hizkera imitatu nahi izan dut, naturaltasuna imitatu nahi izan dut, baina horren atzean oso ariketa neurtua eta konkretua dago. Nire irizpidea izan da lexikoaz, esate baterako, malguago jokatzeko eta sintaxian eta esaldi egituretan zorrotzago jokatzeko edo askoz ere zainduagoak izatea.

Erderakadek irakurlea uxatuko zuten beldur zinen. Gertatu da horrelakorik?

Erderetatik datozen berbak erabili izan ditudanean kontuan izan dut ia ingelesezko edo frantsesezko al-

daera berdintsua izango litzatekeen, eta kasu horietan bai, erabili dut erdera. Estetikaren aldetik edo, aipatzen diren hainbat marka, goxokienak esaterako (panbinbo, txetosak...), kasu horretan ere ulermena ez da oztopatzen eta efektu bat sortzen duzu euskarazko grafiara ekarrita. Hor ere naturaltasuna simulatu nahi izan dut eta horren atzean ere ariketa oso neurtu bat dago.

Eta nola hartu dute irakurleek liburua?

Oro har oso ondo esango neuke. Hizkuntzari dagokionez, gure adin bueltako jendeak, baina baita nagusiagoek eta gazteagoek ere, oso ondo jaso dute proposamen hau eta natural sartu zaie, beti ere kontuan izanik hau dela erregistro linguistiko literario bat, ez da elkarrizketa baten traskribapena. Hau simulazio bat da, eta uste dut gure garai bueltako jendeak ikusi duela hori eta egin duela bere. Irakurle helduagoen partetik kezka puntual bat ere ailegatu zait. Eta ulertzekoa ere bada, euskararen egoera da hain zaurgarria... Batzuetan ohikotik irteten bazara beldurrak sortzen dira ia noraino zabaldu ete daitekeen... Baina uste dut hori gehiago dela urduritasun orokor baten parte eta ez liburuari dagokiona. Eta gaiari dagokionez, oso bere egin dute adin guztietako irakurleek. Azken batean, nerabezaroa esperientzia unibertetsala da, laguntasunarena ere bai, eta kontestua aldatu arren, denok bizi izan ditugu bi protagonisten antzeko gorabeherak eta orokorrean gehiengoek konektatu dute liburuarekin.

Lantzen jarraitu daitekeen biderik badago hor?

Hizkuntzaren lanketa oro har idazten dugun denok eta bertsotan gailtzen denok etenbarik egiten dugun zeo-



ARGAZKIA: MIRIAM CARO.

zer da, modu kontziente edo inkontzienteago batean. Ez dakit hurrengo lanetan ahoz kotasunetik hain gertu ibiliko naizen ala ez. Egia da garrantzitsua dela liburu bakoitzean erregistro linguistikoa bat sortzea ahalik eta gehien doitu zaiona istorio horri edo pertsonaje horri. Nik hemen erabili dudako kriterioa ez da kriterio orokor bat, irizpide konkretu bat da liburu konkretu bat dazteko, pertsonaia konkretu bati ahotso emateko. Orduan, ez dakit hurrengo liburuak zertzuk izango diren baina ahaleginduko naizena da beste behin ere ahotso horri ahalik eta gehien egokituko zaion hizkuntza mota bat sortzen, liburu horrentzako musika edo soinu banda egokia sortzen.

Basan, orain zazpi urte, zahartzaroari begira jarri zinen; orain, berriz, nerabezaroari begira. Zergatik fokua garai horretan?

Lengoaia literario bat sortzea neukan buruan. Gero behar nuena zen pertsonaia bat modu sinesgarrian ahotso hori eramango zuena. Hortik ailegatu nintzen nerabazarora orokorrean eta konkretuki gure nerabazarotara. Hor hasi nintzen apur bat bi pertsonaia nagusiak eraikitzen, eta era berean ahalik eta modu

“Nerabezaroa esperientzia unibertsala da eta denok bizi izan ditugu bi protagonisten antzeko gorabeherak”

zehatzenean kontestualizatzen garai hura, alde batetik pertsonaiaren izakerari buruz ere asko esaten digulako horrek, eta, bestetik, garai horrek markatu zituelako nerabe haien izakerak eta bideak.

Zer ari zara irakurtzen? Gomendiorik?

Bi aipatuko nituzke, biak ere Daniele Sarriugarterenak. Batetik, *Beste zerbait*, liburu hibridoa da, eta, bestetik, *Erraiak*. Modu diferentean baina *Erraiak*-en ere bada-go lehenengo pertsona oso potente bat, indar handiko hizkuntza etorri bat. Bi liburu horiek garai diferentetan eta geruza diferentetatik baina zelabait dialogo batean daude *Pleibak*-ekin.




Klub Deportiboko pilotariak asteburu betea izango dute

E.B. Gaurko jaialdia 19:00etan hasiko da. Errendimenduko Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketan, Arriola eta Segurola alebinak Azpeitiko Ilunpe klubeko bikotearen aurka arituko dira. Ondoren, jubenilen Udaberri Eskuz Binakako Txapelketan, Segurolak eta Urkiagak Oñatiko bikotearen kontra jokatuko dute.

Etiket kanpo ere hitzordu ugari izango dituzte klubeko pilotariak. Errendimenduko Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketan, Atxa eta Uriartek osatutako alebin bikoteak gaur jokatuko du Azpeitian, eta infantilen bi bikoteek bihar Oñatin izango dute partida.

Udaberri Eskuz Binakako Txapelketan, Narvaiza eta Aguirresarobe seniorrek ostiralean Azkoitian jokatuko dute; eta Amillategi eta Gil kadeteek Lasarten. Amuategi eta Landa Beasaingo Antzizarren ariko dira, Zaldibiko Gaztelupe klubeko bikotearen aurka; Varona eta Del Rey-k Antzuolan jokatuko dute, eta Ibarra eta Condek zapatuan Erreterian izango dute hitzordua.

Goma paletan, Udaberri Binakako Torneoan, Osa eta Urain bikote eibartarrak Andoingo Arrate pilotalekuan jokatuko du; Lombrana eta Guinea bikoteak, berriz, barixkuan Erreterian ariko dira lehian.



Eibarko atletak markak hobetu dituzte 200 eta 1500 metroetan

E.B. Zapatuan, Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatuta Short Track PLP E probak jokatu ziren Donostiako Belodromoan, non Klub Eibar atletismo taldeko lau atletak parte hartu zuten eta denboraldiari indarberrituta ekin zioten. 200 metroko proban emakumezkoetan Elene Arrazolak garaipena lortu zuen, 24.76 segundorekin, denboraldiko markarik onena ezarri. Bere azkeneko denbora baino hobea izan zen, eta atleta eibartarraren martxa onaren seinale. Era berean, Farah Chajranek (30.05) eta Nerea Aizpuruk (30.20) ere markarik onenak lortu zituzten euren ibilbidean, biak ere hobekuntza nabarmenarekin. Gizonezkoen 1500 metroko proban, Marcos Untzetabarrenetxeak bere markarik onena lortu zuen 4:53.41 denborarekin, aurreko markatik ia zazpi segundo hobetuz.

Eibarko atletismo zaleek pozik jaso dituzte emaitza horiek, eta taldeak urteko egutegiari begira jarraituko du lehiaketetan marka eta prestaketa hobetzen. Era berean, Gipuzkoako eta nazio mailako hurrengo hitzorduen zain daude, non taldeak bere indarra eta aukerak erakutsi ahal izango dituen elkarren arteko lehiari eta ibilbide pertsonaletan.



Emaitza positiboak xake taldeentzat

E.B. Eibarko Klub Deportiboko xake taldeek Gipuzkoako Taldeak Txapelketa dihardute lehiatzen eta oraingoan asteburu borobila izan dute. Maila Gorenean aritzen den Eibar A-k Salto Bidasoa A-ren aurka berdindu zuen, 2-2; Hirugarren Mailako Eibar B-k geldiezin jarraitzen du ZKE Zarautz C-ri 0-4 irabazita; eta maila berean

jokatzen duen eta xake eskolako ikasleek osatzen duten Eibar C-k berdinketa lortu zuen Debako San Rokeren aurka.

Asteburu honetako neurketak hauek izango dira: Eibar A – Fomento Cultural (Erreteria), Eibar B – Zaleak B (Bergara) eta Eibar C – Agustin de Leiza C (Andoain).



Urbat Urkotronik taldeak hirugarren garaipena jarraian lortu du etxean

E.B. Etxeko partidua bereziki gustuko ditu Bigarren Nazionalean jokatzen duen Urbat Urkotronik waterpolo taldeak. Denboraldia gaizki hasi ondoren, poliki-poliki martxa hartu du talde eibartarrak eta, etxetik kanpo hotz egiten duen arren, etxean garaipenak besterik ez ditu lortu azken aldian.

Oraingoan Tres Cantos talde madrildarra izan dute arerio eibarta-

rrek eta 11-4 gailendu zaie, ligako lehen faseari amaiera itxaropenetsua emanez. Orain, bigarren faseari ekingo diote eta mailari eustea dute helburu.

Asteburu honetan Urbaten hiru taldek besterik ez dituzte euren partidua jokatu eta denak irten dira garaile. Beraz, egun borobilak izan dira eibartarrentzat, eta oraingoan ere bide beretik jarraitu nahi dute.

Futbol zaletuaren azken jardunaldia jokatuko da

Asteburuan amaierara iritsiko da futbol zaletuaren 2025/26 denboraldia. Malape Tabernak orain dela aste batzuk irabazi zuen liga, baina oraindik lehia dago bigarren postua lortzeko.

Bergara Pneumatikoak (29 punturekin), Bar Maren (29 puntu) eta Xania Tabernak dute postu hori lortzeko aukera, eta asteburuan erabakiko da nork lortzen duen helburua. Printzipioz Bergarak 2. postuari eutsi beharko lioke, oraindik punturik lortu ez duen Baserri izango duelako arerio, baina nork daki.

Jardunaldi honen ondoren, futbol zaletuko taldeek Kopa txapelketari ekingo diote.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 42 puntu
2. Bergara Pneumatikoak, 29 puntu
3. Bar Maren, 29 puntu
4. Xania Taberna, 27 puntu
5. Kalaka Buenos Aires, 24 puntu
6. Adahi Etxegi, 22 puntu
7. Garajes Garcia, 19 puntu
8. Limpiezas Rueda, 9 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Inda Team-ekoak K1 Slamean lehiatu ziren


E.B. Zapatuan, K1 Slam jaialdia jokatzen zen Galdakaoko Urreta kiroldegian, eta bertan Inda Team taldeko bi borrokalarari aritu ziren lehian.

Sandra Rocha eibartarrak low kick modalitatean (-62,5 kg) egin zuen borroka, Indar Sport klubeko Marina Valverderen aurka. Neurketako oso parekatua izan zen, eta azken asaltoak erabaki zuen lehia. Azkenean, puntuetara Valverde nagusitu zen, borroka estu eta lehiatuan.

John Nuñezek garaipena eskura-

tu zuen K1 modalitatean (-66 kg), Team Rabbit klubeko Abel Cítore-sen aurka. Puntuetara nagusitu zen Inda Team-eko borrokalariak, esperientzia eta prestakuntza sendoa baliatuta.

Gainera, neurketa honek hurrengo erronkari begirako prestaketa gisa balio izan dio Nuñezi: otsailaren 28an, Aiako probalekuan, Kuraia Martutene klubeko Xabi Gasolen aurka arituko da K1 modalitatean, beste borroka ikusgarri batean.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Athletic Club (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Deportivo - EIBAR (bihar, 16:15)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - At. Madrid C (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Real Union - EIBAR B (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Añorga (etzi, 12:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

Deusto - URKI (gaur, 21:00)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

Lazkao - EIBARTARRAK (bihar, 17:30)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - Santutxu (etzi, 16:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

Arenas - EIBAR B (etzi, 18:30)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - C. Durango (bihar, 15:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Bergara Pn. - Baserri (bihar, 09:00)
- Kalaka Bs. As. - G. Garcia (bihar, 10:30)
- Xania - Limpiezas Rueda (etzi, 09:00)
- Bar Marem - Adahi Etxegi (etzi, 10:30)
- Atsedena: Malape Taberna

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)

E ESKUBALOIA - Camargo 74 (bihar, 19:00)

1. Maila Nazionala (gi)

EIBAR ESKUBALOIA - Loyola (bihar, 16:45)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

E. ESKUBALOIA B - Ereintza (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

Seniorren 1. Maila Maila (gi)

ARTESANOS JUANTXO - Irauli (etzi, 17:30)

Seniorren 2. Maila Maila (em)

EIBAR SASKIBALOIA - Ostadar (bihar, 16:30)

WATERPOLOA

Euskal Herria Liga (em)

Leioa C - URBAT (bihar, 15:40)

Euskal Herria Liga (gi)

URBAT B - Askartza B (etzi, 13:30)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean



Jaz Eibar Triatloi Taldea 18. izan zen Euskadiko Taldekako Duatloian

E.B. Zapatuan jokatu zen Zornotzan Euskadiko Taldekako Duatloi Txapelketa, eta bertan ordezkaritza izan zuen Jaz Eibar Triatloi Taldeak. Eguraldi zakarra izan zuten bidelagun parte-hartzaileek, euria, haizea eta hotza nagusi izan baitziren.

Talde eibartarra Ugaitz Gartzia, Iñigo Gaston, Jokin Amorrosta eta Roberto Gartziak osatu zuten. Baldintza gogorre aurre egin behar

izan arren, lan txukuna egin zuten eta inongo arazorik gabe amaitu zuten proba.

Azken sailkapenean 18. postua eskuratu zuten, egoera zailak kon-tuan hartuta balorazio positiboa eginez. Denboraldi hasiera exijentea izan arren, taldeak sendotasuna eta konpromisoa erakutsi zituen, eta hurrengo hitzorduei begira lanean jarraituko du.

Emakume Master Cup-en finala Astelenan

E.B. Emakume Master Cup txapelketan 10. edizioa lehiatzen dihardute aurten eta final handia gurean jokatuko da, Astelena frontoian. Martxoaren 22an lehiatuko dira txapelketako bikoteak, 12:00etan hasita, eta elite mailako lehia ETB-1ek eta ETB-Satek zuzenean eman-goto dute.

Astelena frontoiarentzat ez da Emakume Master Cup-en finala jasotzen duen lehen aldia, 2018an Arrizabalaga-Etxaniz eta Espinar-

Arrieta nor baino nor aritu baitziren, lehenak gailendu zirelarik (22-7). Ordu hartan frontoia txiki geratu zen bildu zen jendetzaren aldean eta aurten ere esperientzia errepikatu nahi dute antolatzaileek.

Martitzen goizean eman zuten jakitera Eibarko Udalak eta txapelketaren antolatzaileek lortutako akordioa. "Ohorea da Eibarrentzat halako final bat Astelena frontoi historikoan antolatzea", Jon Iraola alkatearen berbetan.



Paula Calvo, Espainiako selekzioarekin eta laugarren Espainiako Txapelketan

E.B. Paula Calvok beste urrats sendo bat eman du bere ibilbidean. Eibar Igerixan klubeko igerilaria Madrilen izan da azken egunotan, Espainiako selekzioarekin egindako kontzentrazioan, 'España 2032' programaren barruan.

Real Federación Española de Natación-ek bultzatutako egitasmoak etorkizuneko erronka olinpikoei begira talentu gazteen garapena sustatzea du helburu, eta Calvok estatuko igerilari onenekin entrenatzeko eta teknikari

nazionalen jarraipena jasotzeko aukera izan du.

Atsedetik hartu gabe, Pontevedran jokatutako Junior Mailako Autonomia Arteko Espainiako Txapelketan parte hartu zuen ondoren. 50, 100 eta 200 metro bizkar probetan eta 100 librean lehiatu zen, baita erreleboetan ere, emaitza sendoak lortuz.

Lortutako puntuazioari esker, bere federazioak laugarren postu bikaina eskuratu zuen sailkapen nagusian, podiumetik oso gertu.

Horrez gain, Eibar Igerixan taldeko igerilarientzat denboraldiak ez du etenik: asteburu honetan Junior-Absolutu mailako Euskal Herriko Txapelketa jokatuko dute Iruñeko Amaya igerilekuetan, eta Gipuzkoako Txapelketan ere ari tuko dira Zarautzen. Horrela, Eibar Igerixanek bere momentu ona berretsi nahi du uretan.

Ongizatea da *Eibar*

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

Ongizatea ondo bizitzea da: zu, zure familia eta zure komunitatea. Aberastasuna sortzea eta partekatzea da, ingurune berde batean bizitzea eta zaindua sentitzea, inor atzean utzi gabe. Lana familia-bizitzarekin bateragarri egitea da, berdintasunean bizitzea. Lagunen artean zahartzea, bizi-kalitatea eta osasuna zaintzea. **Ongizatea da denok ondo bizitzea.** Hori buruz, eta askoz gehiagori buruz hitz egiteko, **EIBARKO ONGIZATEAREN PLAZA** antolatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak **otsailaren 26 eta 27ko Erreboleko merkatuan**. Zatoz eta egin bat Gipuzkoa justuagoo eta ongizate handiagokoa eraikitzea.

OSTEGUNA - OTSAILAK 26

10:00 - 11:30 *osasuntsu zahartu*

ETBko Adinberri programaren tailerra: kirol ariketak, estimulazio kognitiboa eta mindfulness-a.

11:30 - 13:30 *nahi ez den bakardadea*

Sozialki isilarazitako errealitate bati ahotza emango diogu benetako hiru istorioren bidez, Ados Teatroak ekoiztutako film laburrak proiektatuz; eta jarraian, solasaldia.

17:00 - 18:00 *osasun mentala mintzagai*

Why Not Fundazioaren zuzeneko podcasta, osasun mentalari eta desgaitasun intelektualari buruz Eibar Genuine taldeko kideekin besteak beste.

18:00 - 19:00 *emakume ahaldunduak*

Emakume ahaldunduek Eibarko garapenean izan duten paperaz solastuko dira: Arrate Berasaluze, Mariam Ourdi El Alaoui, Ana Ramos, Maite Aperribay eta Amaia Gorostiza.

OSTIRALA - OTSAILAK 27

10:00 - 11:30 *gazteen ongizatea*

Sare-sozialekiko adikzioa, gaitasun sozialen galera, suizidioaren hautua... Armeria Eskolako ikasleekin solasa.

11:30 - 13:30 *elikadura jasangarria*

Jakoba Errekondo adituarekin solasa. Harekin batera, Debabenenako bi nekazari: Egotza baserriko Nagore Martin eta Amazabalegi baserriko Ander Urkia Saiz.

18:00 - 19:00 *teknoadikzioak*

Mugikorr eta teknologia digitalen erabilera arduratsu eta osasungarria sustatzeko saioa, Aitxa Burua elkarlanean. Gurasoei zuzendua.

19:00 - 19:30 *kantu jira*

Kantu Jira saio berezia eta ondoren pintxo poteoa.

Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor batean etengabe aldatzen dena bazara?

“Nor naizen baneki” lana da Artedrama eta Axut! taldeen proposamen eszeniko berria, Harkaitz Canok eta Ximun Fuchsek idatzia. Antzoki baten indusketa arkeologikoa egin, eta historiaren hainbat geruza ateratzen dituzte lurpetik, aurkitutako objektuen eta hura zeharkatzen duten pertsonaien bidez.

Euskaraz asmatu, kontatu eta antzeztu-tako lan honek identitatearen bilaketa jorratzen du, Irulegiko eskuaren aurkikuntza abiapuntu hartuta; eta garai desberdinetan errepikatzen den berezko istorio bat eratzen du.

Antzerkiak eta arkeologiak elkargune bera dute: etengabe berrasmatzen den giza zientzia gisa. Horregatik, obra hau sortzeko, Aranzadi Elkarteko arkeologoen laguntza eman dute, eta haien teknikak, itxaropenak eta kezak partekatu dituzte in situ, indusketa batean.

Otsailak 24
(asteartea)
19:00
Coliseo



Axut! eta Artedrama lankidetzaz sendoa ari dira 2010etik, euskal antzerki garaikidea garatzeko lanean.

Hamabost urteko elkarlanean, artea ereduaren sortzailea dela babestu dute: emozioak adierazteko, identitatea erakitzeko eta oraina zalantzan jartzeko aukera ematen duten ereduak. Beren arteak —euskaraz asmatu eta sortuak— munduan kokatzen ditu, bertakoaren parte izanda, beren komunitateari begira jarrita, baina dimentsio unibertsalari uko egin gabe.

NOR NAIZEN BANEKI

ZOZKETA

Bi sarreraren zozketan
parte hartzeko sartu
etakitto.eus webgunean

Harkaitz Cano,
Ximun Fuchs,
ARTEDRAMA / AXUT!



XLIX ANTZERKI JARDUNALDIAK



CASTING LEAR

Barco Pirata
KOMEDIA / 90'

Otsailak 21
(larunbata)
19:00
Coliseo

Antzezleak: Andrea Jiménez, Juan Paños
Zuzendaria: Andrea Jiménez eta Úrsula Martínez

Nire aita Lear da, baina ez da inoiz antzoki batean sartu. Ni Cordelia naiz. Eta antzerki zuzendaria naiz. Bera bezala, Learren bila noa, begiratzera ausartuko naiz eta barkatzen saiatuko naiz. Eta eszenatoki batetik egingo dut. Gauero, aktore desberdin bat, Lear izango da, nire aita izango da, aita izan daiteke, antzoki batean hitz egitera eseri nahi duen bat.



CONTRA ANA

Cía. La Contraria
DRAMA / 80'

Otsailak 22
(igandea)
19:00
Uni-Eibar

Antzezleak: Carmen Climent, Alma García, León Molina, Cristian Olarte eta Jone Laspiur. **Zuzendaria:** Paco Montes

Contra Ana autofikzio-lan bat da, anorexia islatzen duena (eta TCA bat bere konplexutasunean), Alma García egi-learen benetako esperientzia oinarrituta. 17 urterekin Bartzelonako klinika batean ingesatuta igaro zuen urtea du ardatz, eta gogoeta egiten du identitateari buruz eta kontzeptu horrek berarengan izan zuen eraginari buruz.



NOR NAIZEN BANEKI

Axut! eta Artedrama
DRAMA / 130'

Otsailak 24
(asteartea)
19:00
Coliseo

Antzezleak: Ramon Agirre, Garoa Bugallo, Maialen Diaz, Aline Etxeberri, Manex Fuchs, Idoia Tapia eta Oier Zuñiga
Zuzendaria: Ximun Fuchs

Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor batean etengabe aldatzen dena bazara?
Nor naizen baneki... Zuk badakizu? Bada jakin ondoren damutu denik? Ezagutu daiteke norbere burua isolatuki, norbere ingurunea ezagutu gabe? Nola jakin, zinez, zarena zarela? Gurasoen ispiluan? Seme-alabenean?



DYSPHORIA

Histrión Teatro
DRAMA / 90'

Otsailak 26
(osteguna)
19:00
Coliseo

Antzezleak: Gema Matarranz
Zuzendaria: María Goiricelaya

"Dysphoria" bakarrizketa arriskutsu eta teatraltasunez bete bat da, eta Trans Lege berrian jartzen du arreta, genero-arloko iruzurrean eta gizarteak arau hori etikoki ez urratzeko egiten duen borrokan.



Liburutegiak lupa adimenduna eskainiko du

Irakurketarako oztopoak murrizteko asmoz, Juan San Martin Udal Liburutegiak tresna berritzaile bat gehitu du bere zerbitzuetara: LUP PRO lupa adimenduna. Gailu honen bidez, ikusmen desgaitasuna, dislexia edo irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonak errazago eskuratu ahal izango dituzte testuak, inprimatutako edukiak pantailara eramanez eta bi segundo baino gutxiagotan audio formatura bihurtuz. Horrez gain, testua handitzeko, kontrastea egokitzeko eta hainbat hizkuntzatan irakurtzeko aukera ematen du, erabiltzaileen beharretara moldatuz. LUP PRO gailua liburutegian bertan egongo da erabilgarri, eta bertako langileek laguntza eskainiko diete erabili nahi dutenei.



Marrazketa eta Luzaketa tailerra egingo da hilaren 28an

Marrazketa eta Luzaketa tailerra antolatu du Arrate Kultur Elkarteak otsailaren 28rako (zapatua). Maite Arriaga eta Nuria Rodriguezen eskutik egingo den saioak ordubeteko iraupena izango du (10:00etatik 11:00etara) eta, azaldu dutenez, “luzaketak egiten dituzten modeloen marrazkiak egingo dituzte, pose eta mugimenduen zirriborroak eginez marrazketan hobetzeko”. Kulturalako bazkideentzat prezioa 20 eurokoa da (25 eurokoa besteentzat), eta izena emateko 668516893 (Maite) edo 672275578 (Nuria) telefono zenbakietara deitu daiteke.



Erakusketa berria zabalduko dute gaur Portalean

S.H. Gaur inauguratuko dute *Gai grisa* izeneko erakusketa Portalean. Marrazkiaren, pinturaren, eskulturaren eta bideoaren bidez, erakusketa honetako obrak modu arin eta konplexuan erlazionatzen dira beraien artean, hala forman nola kontzeptuan, lurralde mental bat irudikatu nahian, non ikusten dena eta ikusi ezin dena elkarlotzen diren. Martxoaren 22ra arte egongo da ikusgai, betiko ordutegian.



Zabalik dago Eguen Zuri lehiaketara aurkezteko epea

S.H. Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XXVIII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketara aurkezteko epea zabalik dago, martxoaren 8ra arte. Aratosteekin zerikusia duten argazkiekin hartu daiteke parte, zuri-beltzean nahiz koloretan. Lehiaketa irekia da, parte hartu nahi duen edozeinentzat, eta egile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ditzake. Bai argazki bidalketa, bai izen ematea era digitalean egingo dira, eguenzuri2026@gmail.com posta helbidean.



Musika Bandak Udaberri Kontzertu berezia emango du

Domekan, otsailaren 22an, XVII. Udaberri Kontzertua emango du Eibarko Musika Bandak, 12:30ean, Coliseo antzokian. Kontzertu berezia izango da, aurten Eibarko Txirrindulari Elkartek 100 urte betetzen dituelako. Horregatik, urte hauetan txirrindulari elkartearekin elkarlanean emandako kontzertuetan eskainitako doinuak ekarriko dituzte gogora, “askotariko pieza ederrak” interpretatuz, Andoni Vazquez Eibarko Musika Bandaren zuzendariaren berbetan: “Polkak, Joko Olinpikoetako musika (John Williams)... Kontzertuetara etorri den jendeak ezagutzen dituen piezak izango dira”. Sarrerak Coliseoko leihatilan edo Kutxabank bitartez eskuratu ahal izango dira (dohainik).



‘Preguntamelon’ lanaren bigarren funtzioa antolatu da

S.H. Eibarko Antzerki Jardunaldietan Millan Salcedok aurkeztuko duen *Preguntamelon* ikuskizunerako sarrerak berehala agortu direla ikusita, Udalak bigarren emanaldia antolatu du martxoaren 13rako (barixakua), 19:00etan Coliseo antzokian.



Odisea elkarteak ludoteka antolatu du biharko Errebalen

Mahai-jokoen eta kultura ludikoaren sustapenean aritzen den Odisea elkarteak ludoteka antolatu du bihar zapaturako (otsailak 21), 16:00etatik 20:30era Errebal Plazan. Jarduera doakoa da eta ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea, herritar guztientzat zabalik egongo da. Antolatzaileen berbetan, “familiek zein lagun-taldeek giro parte-hartzailean eta dibertigarrian deskubritu, ikasi eta jolasteko pentsatua dago. Asmoa da Eibar eta inguruko herritarrek aukera izan dezatela mahai-jokoen mundua ezagutzeko, esperientziak partekatzeko, eta arratsalde desberdin bat pasatzeko. Eibarko ludoteka gonbidapen irekia da kultura ludikoaz gozatu nahi duten pertsona guztientzat”.

Poltsak kustomizatzeko ikastaroan izena emateko azken eguna

S.H. Otsailaren 24rako, martitzena, antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek Illunabarrian programaren barruan tailerra eta, bertan, oihalezko poltsak nola kustomizatu ikasteko aukera egongo da. Horretarako, parte-hartzaileek, arroparako errotuladore bereziak erabiliko dituzte, eurek sortutako plantillekin poltsetan marrazteko. Ikastaroan 7 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, ...eta kitto! Euskara Elkarteak izango da (Urkizu 11 solairuartea) eta ordu eta erdi iraungo du (18:30etik 20:00era). Oraindik plaza batzuk libre daude, eta gaur da izena emateko azken eguna, elkarteak@etakitto-ra mezua bidaliz, telefonoz deituz (943200918) edo www.etakitto.eus webgunean dagoen inprimakia betez. Izen-emateak 10 euro balio du (7 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat).



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2		4	8			1
5	1		3	7		6	
			1				
	9					2	
		4				8	
		8					
					3		
		7		2	6		3
8				5	1		9

SUDOKUA

9	6	4	1	5	2	7	3	8
8	3	5	9	2	6	7	1	4
2	7	1	3	4	8	5	9	6
5	9	6	2	1	4	3	7	8
3	1	8	7	6	9	5	2	4
7	4	2	8	3	5	6	9	1
6	2	7	5	9	1	3	4	8
4	8	3	1	6	7	2	5	9
1	5	4	8	3	6	9	7	2

4	8	1	9	7	3	5	2	6
2	7	6	3	4	5	1	8	9
5	3	8	6	1	2	4	7	9
1	2	4	3	6	5	7	8	9
3	5	1	7	4	2	6	8	9
9	1	5	7	4	2	6	8	3
6	4	8	5	3	1	7	2	9
7	9	3	6	1	5	2	4	8
8	2	7	9	4	3	1	5	6

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	6	3	2				4
9	1				6		
8			7	9			
	5					9	3
3		8				4	2
	2	4				8	
				8	2		7
			9			1	8
4				5	3	2	

LETRA-ZOPA

O	Z	A	P	I	L	A	N	U
R	K	I	R	O	D	I	O	M
P	H	A	R	A	K	I	N	A
L	H	O	M	Z	U	E	T	L
A	T	X	A	E	S	O	R	K
U	N	G	I	F	L	K	A	O
H	E	R	O	I	T	E	M	A
H	E	Z	P	R	O	L	O	K
U	R	A	S	O	R	R	A	I

- HEROI

MALKOAK

HEGAZKIN

HARAKIN

ZAPI
- PILOTA

KAMELEOI

ARROSA

AHARI

POKER

U	R	A	S	O	R	R	A	I
H	E	R	O	I	T	E	M	A
U	N	G	I	F	L	K	A	O
A	T	X	A	E	S	O	R	K
L	H	O	M	Z	U	E	T	L
P	H	A	R	A	K	I	N	A
R	K	I	R	O	D	I	O	M
O	Z	A	P	I	L	A	N	U

Otsailak 20 - Otsailak 26

BARIXAKUA 20

AURKEZPENA

18:30 Eibarko Talde Feminista berriaren aurkezpena. Arrate Kultur Elkartea (1. solairua).



ZAPATUA 21

IKASTAROA

11:00/13:00 Serigrafia ikastaroa. Ipuruako Merkatu Plaza.



ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta **16:30/20:30** Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan, EMGI-ren bonuarekin). Astelena frontoia.

BISITA GIDATUA

17:00 Doako bisita gidatua, Museoko erakusketa iraukorra. Euskaraz (gaztelaniaz 18:30ean). Eibarko Armagintzaren Museoa.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Casting Lear" (Barco Pirata, Madril). 15 euro (10,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

DOMEKA 22

BISITA GIDATUA

11:00/14:00 Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoa. Euskaraz. Arrateko Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa.

MUSIKA

12:30 XVII. Udaberriko Kontzertua. Txirrindulari musika, Eibarko Musika Bandaren eskutik. Doan. Coliseo.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Contra Ana" (Cía. La Contraria, Madril). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Uni Eibar.

ASTELEHENA 23

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 24

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Nor naizen bane-ki" (Axut! eta Artedrama, Lapurdi, Bizkaia). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ILLUNABARRIAN

18:30/20:00 "Tote bag" poltsak pertsonalizatzeko ikastaroa, ...eta kitto! Euskaraz Elkartearen eskutik. 10 euro (7 euro bazkideentzat). ...eta kitto! Euskaraz Elkartearen egoitza.



EGUENA 26

HITZALDIA

10:00/12:00 "Tienen futuro las pensiones?", E. G. Elo-suaren eskutik. Ikasten elkartear antolatuta. Sarrera libre. Portalea.

ONGIZATEAREN PLAZA

10:00/11:30 "Osasuntsu zahartu", Adinberriren eskutik. **11:30/13:00** "Nahi ez den bakardadea", Ados Teatroak ekoiztutako film laburren proiektzioa eta solasaldia. **17:00/18:00** "Osasun mentala mintzagai", Why Not Fundazioaren podcasta. **18:00/19:00** "Emakume ahaldunduak" solasaldia. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta. Errebal Plazia.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Dysphoria" (Histrión Teatro, Granada). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 20tik martxoaren 22ra arte

"Gai grisa", erakusketa kolektiboa. Portalea.

Otsailaren 21era arte

"Eibar: Laino guztien gainetik edo... azpitik", Jose Luis Irigoienek argazki erakusketa. Topaleku.


Otsailaren 26ra arte

"Itsaspeko bihotzak" erakusketa didaktikoa, Galtzagorri elkartearen eskutik. Andretxea.

Otsailaren 28ra arte

"Zientzia-emakumeak argira", Elhuyar Fundazioaren eskutik. Andretxea

ZINEA COLISEO



"Cumbres borrascosas"
ERROMANTZEA. DRAMA

2026 / Erresuma batua / 136'
Zuzendaria: Emerald Fennell
Aktoreak: Margot Robbie, Jacob Elordi, Hong Chau, Shazad Latif
Garaiko drama

ARETOA

ANTZOKIA

- 22an: 20:00
- 23an: 19:30



DRAMA

2025 / Erresuma batua / 125'
Zuzendaria: Chloé Zhao
Aktoreak: Jessie Buckley, Paul Mescal, Zac Wishart
Biografikoa. Amatasuna. Aitatasuna

ARETOA

ARETOA



"Return to Silent Hill"
IZUA. THRILLERRA

2025 / Frantzia / 106'
Zuzendaria: Christophe Gans
Aktoreak: Jeremy Irvine, Hannah Emily Anderson, Robert Strange
Naturaz gaindikoa. Bideojokoa

2 ARETOA

- 21ean: 22:30
- 22an: 17:00, 20:00
- 23an: 19:30



FANTASTIKOA

2025 / AEB / 88'
Zuzendaria: Michael Johnson
Animazioa

2 ARETOA

- 21ean: 17:00

ANTZOKIA



Fernando Perez de Obanos Lopez

2026/02/12

Beti egongo zara gurekin.
Maite zaitugu.

- KUADRILLAKOAK -



Jose Luis Prieto "Txelu"

5. URTEURRENA
2021/02/19

Maite zaitugu

- IDOIA, AITOR ETA IGOR -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **JONTXU!**
Gaur bi urte egiten dituzu eta. Zu zara etxeko dantzari onena. Maite zaittugu. Zure familia.



Zorionak **MALEN!**
Otsailaren 17xan 5 urte egin zenduaz. Jon, ama eta aitaren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak **MAREN!**
Etxeko printzesak 3 urte bete dittu. Jarraitu beti haiñ alai. Patxo potolo bat famelixaren eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak **ENE!**
Hillaren 17an 40 urte bete dozuz eta. Etxekuek asko maite zaittugu, batez be Mateok eta Vegak.



Zorionak **XABI!**
Mutil haundi, domekan 9 urte beteko dozuz. Patxo haundi bat etxekuen partez. Jarraitu horren alai!



Zorionak **ALEX!**
Domekan 7 urte bete zenduaz. Espero dogu egun polita pasau zenduala, remontadita eta guzti! Asko maite zaittugu.



Zorionak **IBAI!**
Bihar 8 urte. Espero dogu bizitzak zuk ematen deskuzun adina zorion emotia. Famelix guztiaren partez.



Zorionak **ANDER!**
Atzo urtia bete zenduan eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak **MARGOT!**
5 urte iada!! Asko maite zaittugu!!



Zorionak familia!
18an **amak**, 21ean **Paulek**, eta 23an **aitak** ospatuko du bere urtebetetzia. Musu haundi bat amaxoren partez.



Zorionak **ARATZ** eta **MARKEL**, zapatuan 6 urte beteko dozuez eta. Besarkada eta musu asko etxekuen partez. Ez galdu irrifarre eder hórrek.



Zorionak **MARTIN** zure hamaikagarren urtebetetzian! Ikaragarri maite zaittugu famelix guztixak.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskeraek
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Ipuruan, batez ere J.A. Mogel inguruan, garajeak alokairuan hartuko nuke. 646369330.

4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala, baita ospitaletan ere. Edozein ordu eta egunetan. 642852854.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 611557583.
- Nagusiak edo umeen zaintzarako langilea eskaintzen da. Esperientzia eta disponibiltate osoarekin. 642450647.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 612418185.
- Emakumea eskaintzen da edozein motako etxeko lanak burutzeko, nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Aste-buruetan bakarrik. 613 287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalari-tzako edozein lan motarako. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. 602398328.
- Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mugikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.
- Mekanika ingeniaria eskain-

- tzen da edozein motako lanak burutzeko: Igeltseritza, iturgintza, elektrizitatea, pintura... 641838914.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Eguerdiko 12:00etatik aurrera, edozein ordutan. Soziosanitario ziurtagiriarekin. 678135914.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 643860541.
 - Emakumea eskaintzen da arlo soziosanitorian lan egiteko. Tituluarekin eta nagusiak zaintzeko esperientziarekin. 642578943.

4.2. Langile bila
• Sukaldaria behar da Debabarreneko jatetxe baterako. Esperientziarekin eta kotxearekin. Curriculuma bidali whatsapp-pe: 672258100.
• Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindeg-i baterako. Lan giro bikaina. 943208125.
• Pertsona nagusiaren zaintzarako emakumezkoa behar da. Interna moduan lan egiteko eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 606671290.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.2. Eman
• Egoera oso onean dauden bi altzari oparitzen dira: 80 cm-ko zabalera eta 6 kajoiko egurrezko sinfoniera. 70 cm-ko zabalera eta 2 m inguruko al-tueradun egurrezko armairua. 658715978.

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clínica estética

MEDIKUNTZA ESTETIKOA
• Dermatología estética
• Auspegi gatzetza
• Balezteak
KIRURGIA ESTETIKOA
• Bektaroplastia eta otoplastia
• Liposukzioak
• Kirurgia Intimoa

Egiguren, 6 - Behea 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragüeta 2bis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



**RS Medikuntza
Estetikoak**
Maria Rosmina Soliz
Salvaterra DOKTOREA

CLÍNICA DENTAL Y
MEDICINA ESTÉTICA RS 943 90 30 36 / SAN JUAN, 7

OKULISTAK



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmología Clínica

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



PODOLOGOAK



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746**

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOAK

**Maider
Lopez
Etxeberria**

Arragüeta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOLOGOAK



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

**Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa**

Oscar / Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALEZ

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



DEVI OM

**YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA**

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)



BISTA·EDER

Hortz Klinika · Clínica Dental

IRUDI
BERRIA,



ZURE
IRRIBARREAREKIKO
BETIKO PASIO
BERBERA